# FUNDAZIOEN AHOLKU-BATZORDEAREN JARDUEREI BURUZKO MEMORIA 2020. URTEA

Fundazioen Aholku Batzordeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 8.11 artikuluan aurreikusitakoa betez, bere jarduerei buruzko 2020. urteko memoria prestatu du. Aholku-batzordeak jarraian jasotako fundazioei buruzko nahitaezko txostena igorri du 2020. urtean. Era berean, 2020.urtean Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatutako fundazioen izaera eta xede-mota zehazten dira txosten honetan. Era berean, txostenak batzordearen funtzionamenduari buruzko informazio garrantzizkoa jasotzen du.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak administrazioa ireki eta gardenagoa bihurtzeko duen konpromisoa betez, eta datu irekien estrategia indartze aldera, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatutako elkarteen estatutuak argitaratu ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatutako fundazioekin egin zen bezala, mota horretako informazioa irekian ematen dituen lehen administrazioa, alegia. Estatutuak "Elkarte- eta fundazio-erregistroaren bilatzailea eta ziurtagiri automatikoak igortzea" atalean kontsulta daitezke, www.euskadi.eus/registros atarian.

Aipatutako informazioa aurretiaz publikoa bazen ere, espreski eskatu behar zitzaion Erregistroari. Hemendik aurrera, herritarrek identifikatzeko bitarteko elektronikorik erabili gabe deskargatu ahal izango ditu Estatutuak, administrazio-izapiderik gabe eta inolako kosturik gabe.

# MEMORIA DE ACTIVIDADES DE LA COMISIÓN ASESORA DE FUNDACIONES AÑO 2020

La comisión asesora de Fundaciones, en cumplimiento de lo previsto por el artículo 8.11 del Decreto 115/2019, de 23 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado y del Registro de Fundaciones del País Vasco, ha elaborado la memoria anual de actividades correspondiente al año 2020. A continuación, se detallan la naturaleza y tipología de los fines de aquellas fundaciones sometidas a informe preceptivo de la comisión asesora durante el año 2020, así como de aquellas fundaciones inscritas en el Registro de Fundaciones del País Vasco en el mismo año. Asimismo, el informe incluye información relevante sobre el funcionamiento de la propia comisión.

Por otra parte, en cumplimiento de su compromiso del Gobierno Vaco por el impulso de una administración más abierta y transparente, y con objeto de reforzar la estrategia de datos abiertos, la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos, ha hecho públicos los Estatutos de las asociaciones inscritas en el Registro General de Asociaciones del País Vasco, de la misma manera que se realizó con las fundaciones inscritas en el Registro de Fundaciones del País Vasco, convirtiéndose así en la primera administración que facilita en abierto este tipo de información. La consulta de los Estatutos puede hacerse a través del "Buscador del registro de asociaciones y fundaciones y emisión de certificados automáticos" alojado en el portal www.euskadi.eus/registros.

Esta información ya era pública, pero había que solicitarla expresamente al Registro. Los citados Estatutos podrán ser descargados por cualquier ciudadano o ciudadana sin necesidad de utilizar medios electrónicos de identificación, sin trámite administrativo ni coste alguno.

**Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritza**

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza fundazioei aholkua eta laguntza teknikoa emateko administrazio-organo gisa osatzen da. Fundazio-eskubidea behar bezala balia dadin erraztu eta sustatu beharko du, zainduz legearen araberakoa dela fundazioen eraketa eta funtzionamendua eta benetan betetzen direla fundatzailearen edo fundatzaileen borondatea eta fundazioaren helburuak.

**Protectorado de Fundaciones del País Vasco**

El Protectorado de Fundaciones del País Vasco se configura como un órgano administrativo de asesoramiento y apoyo técnico de las fundaciones, que deberá facilitar y promover el correcto ejercicio del derecho de fundación, velando por la legalidad de la constitución y funcionamiento de las fundaciones, así como por el efectivo cumplimiento de la voluntad de la persona o personas fundadoras y de los fines fundacionales.

**Fundazioen Babeslaritzaren Aholku-Batzordea**

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeko 48.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Fundazioen Aholku Batzordea, kide anitzeko organoa da, eta honako hauek dira haren eginkizunak: laguntza ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari, txostenak egitea fundazioen eraketa inskribatzeko espedienteei buruz, haien helburuen zilegitasunari eta interes orokorrari dagokienez eta fundazioen bideragarritasunari doakionez, baita nahitaez txostenak egitea fundazioen arloko xedapen orokorren proiektuei buruz. Fundazioek lantzen dituzten arloetan eskumenak dauzkaten sailek osatzen dute batzorde hori.

Horri dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 8. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, sailburu bakoitzak bere ordezkari jardungo duen kidea izendatu du, titularra eta ordezkoa, lau urterako.

**Comisión Asesora del Protectorado**

La Comisión Asesora de Fundaciones es el órgano de naturaleza colegiada que tiene como funciones la asistencia al Protectorado de Fundaciones del País Vasco, la emisión de informe sobre los expedientes de inscripción de la constitución de fundaciones, en lo referente a la licitud e interés general de sus fines y la viabilidad de las mismas, así como informar con carácter preceptivo en los proyectos de disposiciones generales en materia de fundaciones, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 48.2 de la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y de ella forman parte, aquellos Departamentos con competencias en el ámbito sectorial en el que desarrollen sus actividades las Fundaciones.

A este respecto de acuerdo con lo previsto por el artículo 8 del Decreto 115/2019, de 23 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado y del Registro de Fundaciones del País Vasco, se ha procedido a la designación de las personas que actuarán como vocal, y persona suplente, en representación de cada Consejero/a, por un periodo de cuatro años.

**Fundazio eta elkartegintza sektorea**

EAEko fundazioen sektorea EAEko BPGren %1a da. 6.500 milioi euro inguruko ondare garbia, 1.000 milioi euro inguruko diru-sarrerak eta 12.000 pertsona inguru enplegatzen dituzte.

Guztira, Euskal Autonomia Erkidegoan 25.000 elkarte (horietatik 270 herri onurako elkarteak dira) eta 700 fundazio inguru daude inskribatuta.

**Sector fundacional y asociativo**

El sector fundacional vasco supone el 1% del PIB vasco, con un patrimonio neto que ronda los 6.500 millones de euros, tienen unos ingresos anuales cercanos a los 1.000 millones de euros y emplean a cerca de 12.000 personas.

En total en la Comunidad Autónoma del País Vasco hay más de 25.000 asociaciones (de las cuales 270 reconocida la declaración de utilidad pública) y cerca de 700 fundaciones inscritas.

Hona hemen 2020. urtean Euskadiko Fundazioen Erregistroan izandako inskripzioak:

A continuación se detalla las fundaciones inscritas en el año 2020 en el Registro de Fundaciones:

**FUNDACIÓN CAMINO DE SANTIAGO DEL NORTE-IPARRALDEKO SANTIAGO BIDEA FUNDAZIOA**

Inskripzio zkia.: F-452

EHAA 35. zk., 2020ko otsailaren 20a, osteguna

Xedeak:

– Iparraldeko Santiago bidea eta barruko bidea (edo San Adriango Tunela) biziberritzea, kontserbatzea eta sustatzea, batez ere Gipuzkoako zatian.
– Erakunde, instituzio, entitate eta pertsona publiko nahiz pribatuen aurrean, Iparraldeko Santiago bidearen eta San Adriango Tunelaren ondare kulturala defendatzearen eta kontserbatzearen alde egitea.
– Santiago bideen ezagutza bultzatzea, batez ere Gipuzkoan, ikerketa bultzatuz, informazioa eta dokumentazioa elkartrukatuz eta argitalpenak eginez.

– Gure lurraldean zehar dabiltzan Santiago Bideko erromesei kasu egin eta laguntzea, erromesen ospitaleak eta ostatuak eraiki, ezarri eta berriztatuz, bai eta bertan lagunduz eta mantentze-lanak eginez ere.

– Hitzaldiak, mahai-inguruak eta proiekzioak ematea, iritzi-trukaketak egitea, erakusketak, biltzarrak eta lehiaketak antolatzea, eta Santiago Bidea ezagutzera emateko, haren berri zabaltzeko eta hura defendatzeko denetariko materialak sortzea.
– Gipuzkoako Santiago bideak aztertzeko eta ikertzeko bekak, laguntzak eta sariak sustatzea, bai eta Santiago bideari eta erromesei buruzko denetariko ikerketak, estatistikak eta topaketak egitea ere.
– Aipatu diren helburuak lortzeko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak biltzea.

– Fundazioaren xedeak lortzen lagundu dezakeen beste edozein helburu.

**FUNDACIÓN CAMINO DE SANTIAGO DEL NORTE-IPARRALDEKO SANTIAGO BIDEA FUNDAZIOA**

Nº de inscripción: F-452

BOPV N.º 35, jueves 20 de febrero de 2020

Fines:

– Promover la revitalización, conservación y recorrido del Camino de Santiago del Norte y del Camino del interior o Túnel de San Adrián, especialmente en sus recorridos por Gipuzkoa.
– Actuar antes organismos, Instituciones, Entidades y personas tanto públicas como privadas en orden a la defensa y conservación del patrimonio cultural del Camino de Santiago del Norte y del Túnel de San Adrián.
– Impulsar el conocimiento de las Rutas jacobeas, especialmente en la provincia de Gipuzkoa, mediante la investigación e intercambio de información, documentación y edición de publicaciones.
– Atender y ayudar a los peregrinos que recorren los Caminos de Santiago por nuestra provincia, mediante la construcción, instalación y restauración de hospitales y albergues de peregrinos, así como la atención y mantenimiento de los mismos.
– La celebración de conferencias, mesas redondas, charlas, proyecciones, intercambio de impresiones, exposiciones, congresos, concursos y edición de todo tipo de material que contribuya a su conocimiento, divulgación y defensa.
– Promoción de Becas, Ayudas y Premios relacionados con el estudio e investigación de los Caminos de Santiago en Gipuzkoa.

– Allegar recursos tanto económicos como humanos para el cumplimiento de los fines anteriormente enunciados.
– Cualesquiera otros que puedan ser conducentes a la realización de los fines fundacionales.

**FUNDACIÓN ARAUBIDEAN**

Inskripzio zkia.: F-451

**FUNDACIÓN ARAUBIDEAN**

Nº de inscripción: F-451

EHAA 39. zk., 2020ko otsailaren 26a, asteazkena

Xedeak:

Helburu nagusia eta behinena hauxe du: betetzeari buruzko kultura sustatzea eremu publiko eta pribatu guztietan, funtsezko printzipio hauek dituela: etika, giza eskubideen errespetua, praktika onak eta legeen betetzea.

BOPV N.º 39, miércoles 26 de febrero de 2020

Fines:

El fin principal y primordial es promover la cultura de cumplimiento en todos los ámbitos, públicos y privados, y en todos los sectores de la sociedad, teniendo como principios básicos y fundamentales la ética, el respeto a los derechos humanos, las buenas prácticas y el cumplimiento de la ley.

**FUNDACIÓN AGUIRRE Y ARANZABAL**

Inskripzio zkia.: F-455

EHAA 109. zk., 2020ko ekainaren 5a, ostirala

Xedeak:

Eibarko arma-tradizio historikoa babestea eta estatuan edo nazioartean sustatzea.

**FUNDACIÓN AGUIRRE Y ARANZABAL**

Nº de inscripción: F-455

BOPV N.º 109, viernes 5 de junio de 2020

Fines:

Preservar la tradición histórica armera eibarresa y su proyección nacional o internacional.

**BASABIDE FUNDAZIOA**

Inskripzio zkia.: F-454

EHAA 69. zk., 2020ko apirilaren 8a, asteazkena

Xedeak:

– Giza eskubideen defentsa, elkartasuna, aniztasuna eta berdintasuna, batez ere pertsona eta kolektibo zaurgarrienekin.

– Feminismoa, matxismoari eta genero-indarkeriaren adierazpen ugariei kontrajartzeko.

– Nazioarteko elkartasuna, maila kolektiboan eta banakakoan, azpimarra berezia eginez pertsona migratzaile eta errefuxiatuei.
– Komunitate-garapena, ekintza sozialaren sustapena eta sareko lana, bereziki zainduz aukera gutxien dituztenak.

– Ingurumenaren eta amalurraren defentsa, eta tokiko-kontsumoaren eta kontsumo ekologikoaren ereduak.
– Ekonomia sozialaren sustapena, ondasunak eta zerbitzuak pertsona guztiontzat justua den eran sortu eta trukatzeko.
– Harreraren inguruko ikerketa zientifikoa, pertsona migratzaile eta errefuxiatuei dagokienez, batez ere.
– Hizkuntza-aniztasuna eta euskal kultura.

**BASABIDE FUNDAZIOA**

Nº de inscripción: F-454

BOPV N.º 69, miércoles 8 de abril de 2020

Fines:

– La defensa de los derechos humanos, la solidaridad, la diversidad y igualdad, especialmente con aquellas personas y colectivos más vulnerables.
– El feminismo, en contraposición al machismo y la violencia de género en sus múltiples manifestaciones.
– La solidaridad internacional, tanto a nivel colectivo como individual, con especial énfasis en las personas migrantes y refugiados.
– El desarrollo comunitario, la promoción de la acción social y el trabajo en red, velando en especial por quienes tienen menos oportunidades.
– La defensa del medio ambiente y la madre tierra, y los modelos de consumo local y ecológico.
– El fomento de la economía social, como una forma de generar e intercambiar bienes y servicios más justa para todas las personas.
– La investigación científica en torno a la acogida, especialmente en relación a personas migrantes y refugiadas.
– La diversidad lingüística y cultura vasca.

– Teknologia askeak eta ezagutza irekia, komunitatearen ongizatearen parte diren heinean.

– Las tecnologías libres y el conocimiento abierto, como parte del procomún.

**FUNDACIÓN MEETTOK FUNDAZIOA**

Inskripzio zkia.: F-453

EHAA 154. zk., 2020ko abuztuaren 7a, ostirala

Xedeak:

Literaturaren sustapena eta prestigioa.

**FUNDACIÓN MEETTOK FUNDAZIOA**

Nº de inscripción: F-453

BOPV N.º 154, viernes 7 de agosto de 2020

Fines:

La promoción y el prestigio de la literatura.

**FUNDACIÓN THEPINKFORCE**

Inskripzio zkia.: F-456

EHAA 146. zk., 2020ko uztailaren 27a, astelehena

Xedeak:

Patologia desberdinak dituzten gaixoak, bereziki ahulenak, eta haien senideak indartzeko ekimenak sustatzen dituzten eta, horrela, agindutako terapiak gainditze aldera haien ingurune fisikoa, autoestimua eta animoa hobetzen duten erakundeei laguntzea. Horretarako, elkarte horien eta haien buru den fundazioaren beraren elkartasuna eta hedapen soziala sustatuko da.

**FUNDACIÓN THEPINKFORCE**

Nº de inscripción: F-456

BOPV N.º 146, lunes 27 de julio de 2020

Fines:

Apoyar a entidades que promueven iniciativas que refuercen a familiares y enfermos de diferentes patologías, en especial a los más vulnerables, de modo que mejoren su entorno físico, su autoestima y su ánimo para sobrellevar las terapias prescritas impulsando la solidaridad y la difusión social de esas asociaciones y de la propia fundación que las encabeza.

**FUNDACIÓN INDUSTRIAS CREATIVAS**

Inskripzio zkia.: F-457

EHAA 144. zk., 2020ko uztailaren 23a, osteguna

Xedeak:

– Ikerketa eta sorkuntza, kultura- eta sormen-arloan.
– Ikerketa eta sorkuntza sustatzea kultura- eta sormen-arloan.
– Kultura eta sormeneko edo kultura- eta sormen-arloarekin lotutako prestakuntza-programak diseinatu, garatu eta gauzatzea.
– Kultura- eta sormen-sektorearen profesionalizazioa babestea.
– Kultura- eta sormen-arloko ezagutza transmititu eta ezagutaraztea.
– Kultura eta sormeneko edo kultura- eta sormen-arloarekin lotutako jarduerak diseinatu, garatu eta gauzatzea.

**FUNDACIÓN INDUSTRIAS CREATIVAS**

Nº de inscripción: F-457

BOPV N.º 144, jueves 23 de julio de 2020

Fines:

– Investigación y creación en el ámbito cultural y creativo.
– Fomento de la investigación y creación en el ámbito cultural y creativo.
– Diseño, desarrollo y ejecución de programas formativos de contenido cultural y creativo y/o vinculados con el sector cultural y creativo.
– El apoyo a la profesionalización del sector cultural y creativo.
– Transmisión y difusión del conocimiento en materia cultural y creativa.
– Diseño, desarrollo y ejecución de actividades culturales y artísticas y/o vinculadas con el sector cultural y creativo.

– Kultura- eta sormen-jarduerak, ekintzak, edukiak eta ekitaldiak garatzeko baliabideak koordinatzea eta sortzea.
– Kultura- eta sormen-arloko aholkularitza- eta babes-programak diseinatu, garatu eta gauzatzea.
–Kultura- eta sormen-arloko erakunde, organismo eta instituzioekin lankidetzan aritzea.

– Kultura- eta sormen-sektoreko enpresa-ehuna indartzea.
– Kultura- eta sormen-sektorean estatuko eta nazioarteko sareen sorrera eta horietan nahiz beste sare batzuetan parte hartzea sustatzea.

– Kultura- eta sormen-sektorearen nazioartekotze artistiko eta profesionalerako baliabideak sortzea.
– Gizarte-ekintza, ekonomia soziala eta lankidetza sustatzea.
– Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aukera-berdintasuna sustatzea kultura- eta sormen-sektorean.
– Euskara eta euskararen erabilera, hizkuntza-aniztasuna eta euskal kultura babestu, sustatu eta indartzea.
– Ingurumenaren gainean kontzientziatzea eta ingurumenarekiko eta ondarearekiko errespetua sustatzea, eta ingurumena, ondarea eta jasangarritasuna babestea.
– Ongintzako jarduerak diseinatu, antolatu, aurrera eraman eta gauzatzea.
– Boluntariotza sustatzea.

**FUNDACIÓN EIC ENERGY ADVANCED ENGINEERING FUNDAZIOA**

Inskripzio zkia.: F-460

EHAA 181. zk., 2020ko irailaren 14a, astelehena

Xedeak:

– Balioa sortzeko zentro bat sortzea energia-sektoreko fabrikazio aurreratuaren sektorerako, bereziki Oil&Gas arloari dagokionez, kualifikazio handiko pertsonen koordinazioan oinarrituta, sektorearen ezagutza garatzeko helburuarekin.

– Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerak garatzea, era guztietako enpresekin lehentasunezko eta zuzeneko lankidetza-proiektuak garatu eta gauzatuta, energia-sektorearen fabrikazio aurreratuaren esparruan lehiakortasuna eta berrikuntza zuzenean

– Coordinación y creación de recursos para el desarrollo de actuaciones, acciones contenidos y actividades culturales y creativas.
– Diseño, desarrollo y ejecución de programas de apoyo y asesoramiento en el ámbito cultural y creativo.
– Colaboración con entidades, organismos e instituciones vinculadas con el ámbito cultural y creativo.
– Fortalecimiento del tejido empresarial del sector cultural y creativo.
– Fomento de la creación de redes en el sector cultural y creativo en el ámbito nacional e internacional, y participación en dichas redes, así como en cualesquiera otras ya existentes.
–Generación de recursos para la internacionalización artística y profesional del sector cultural y creativo.
– Promoción de la acción social, de la economía social, de la cooperación.
– Fomento de la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres dentro del sector cultural y creativo.
– Preservación, promoción y fomento de la lengua vasca y de su uso y de la diversidad lingüística y cultural vasca.
– Concienciación y fomento del respeto al medioambiente y al patrimonio, y la defensa del medioambiente, del patrimonio y de la sostenibilidad.
– Diseño, organización, desarrollo y ejecución de actividades con fines benéficos.
– Fomento del voluntariado.

**FUNDACIÓN EIC ENERGY ADVANCED ENGINEERING FUNDAZIOA**

Nº de inscripción: F-460

BOPV N.º 181, lunes 14 de septiembre de 2020

Fines:

– Crear un centro de generación de valor para el sector de la fabricación avanzada en el sector energético, en especial en lo referente al área de Oil&Gas, basado en la coordinación de personas altamente cualificadas con el objeto de desarrollo del conocimiento del sector.
– Desarrollo de actividades de investigación científica y desarrollo tecnológico mediante el desarrollo y ejecución de proyectos en colaboración principal y directa con todo tipo de entidades empresariales, a fin de que redunde de manera directa en el incremento de la competitividad e innovación en el ámbito de la

areagotzeko, bereziki Oil&Gas arloari dagokionez.

– Edozein lanbide-mailatan prestakuntza ezartzea, fabrikazio aurreratuaren eremuko pertsonen kualifikazioa hobetzeko energia-sektorean, bereziki Oil&Gas arloari dagokionez, haien lehiakortasuna eta trebetasunak sustatuz.

– Proiektu berritzaileak erakartzea fundazio honen xede den sektorearen zerbitzura.
– Interes orokorreko fundazioaren xede horiek lortzeko bestelako ekimenak eta ekintzak.

**JAKINTELLIGENT FUNDAZIOA**

Inskripzio zkia.: F-461

EHAA 228. zk., 2020ko azaroaren 17a, asteartea

Xedeak:

– Elikadura eta gastronomia sustatzea, gizartean etorkizun hobea eraikitzeko zeharkako eta diziplina anitzeko tresnak diren aldetik, eta bizitza-kalitatea eta, oro har, ongizatea bultzatzea.
– Elikadura eta gastronomiaren bidez, gizarteari jakintza eta informazioa transmititzeko agente izatea. Hala, baliabide eta tresnak jarriko ditu eskura, gizartea eta balioak hobetzeko, eta zuzenean eragingo du berebiziko garrantzia duten zenbait balioren gainean: jasangarritasuna, osasungintza eta osasuna. Egiteko horretan, elikadura eta gizarte-konpromisoa baliatuko ditu, Euskadiko herritarren eta, finean, mundukoei onura sozialak ekartzeko.
– Esperientzia berriak diseinatzea, haien bitartez etorkizunean baliabideen kalitatea, segurtasuna, jasangarritasuna eta jarraikortasuna bermatzeko garapen jasangarriaren esparruan, eta, gainera, lehen sektorearen eta ingurunearen garrantzia nabarmentzeko. Esperientzia horien artean, tokiko kulturan errotutako konnotazioak jasoko dira, alde batera utzi gabe abangoardiako eta egungo ikuspegitik etorkizuneko gastronomia garatzeko ekimenak, emaitza berriak lortzea ahalbidetuko dutenak garai eta erronka berrien aurrean, eta lehen sektorearen bikaintasuna aldeztuko dutenak.
– Belaunaldi berrietan, balioak eta jakintza sortzea, eta, hala, elikaduraren, sukaldaritzaren eta gastronomiaren munduari buruzko ikuspegi aitzindari, bakar eta zeharo abangoardiakoa transmititzea. Horretaz gainera, sektore honetan

fabricación avanzada del sector energético, en especial al área de Oil&Gas.
– Implantar la formación en cualquier nivel profesional para mejorar la cualificación de las personas del ámbito de la fabricación avanzada en el sector energético, en especial en lo referente al área de Oil&Gas fomentando su competitividad y sus habilidades.
– Atraer proyectos innovadores al servicio del sector objeto de la presente Fundación.
– Cualquier otra iniciativa y acción que tienda a la consecución de los fines fundacionales de interés general anteriormente referidos.

**JAKINTELLIGENT FUNDAZIOA**

Nº de inscripción: F-461

BOPV N.º 228, martes 17 de noviembre de 2020

Fines:

– Promover la alimentación y la gastronomía como herramienta transversal y multidisciplinar para construir un futuro socialmente mejor, impulsando una mejora en la calidad de vida y el bienestar general.
– Ser un agente transmisor de conocimiento e información a la sociedad a través de la alimentación y la gastronomía, de forma que se posibiliten medios y herramientas para la mejora de la sociedad y de los valores, actuando directamente en ámbitos de valores tan vitales como la sostenibilidad, la sanidad y salud a través de la alimentación y el compromiso social, que refunden en un beneficio social de la ciudadanía vasca y, en definitiva, de la ciudadanía mundial.
– Diseñar nuevas experiencias que dentro del marco del desarrollo sostenible garanticen la calidad, seguridad, sostenibilidad y la continuidad de los recursos para el futuro y que asimismo promuevan poner en valor el sector primario y al propio entorno, incluyendo en estas experiencias connotaciones arraigadas a la cultura propia del lugar, sin abandonar iniciativas que desarrollen la gastronomía de futuro desde perspectivas vanguardistas y contemporáneas que deriven en nuevos resultados para nuevos tiempos y retos, favoreciendo asimismo la excelencia del sector primario.
– Crear valor y conocimientos entre las nuevas generaciones para transmitir así una visión pionera, única y de vanguardia absoluta en cuanto al mundo de la alimentación, restauración y gastronomía, dotando a los jóvenes talentos

diharduten talentu gazteei gaitasun eraginkor eta probetxugarriak eskuratzea, gauza izan daitezen etorkizuneko erronkei aurre egiteko baliabide eta tresnak garatzeko, garapen jasangarriaren lehentasunezko helburuaren esparruan, zeinak hainbat arlo biltzen baititu, hala nola osasuna eta ongizatea, planetaren eta ekosistemen babesa, hezkuntza, genero-berdintasuna eta ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.

vinculados a este sector de capacidades eficaces y provechosas que les permitan desarrollar medios y herramientas para afrontar los retos del futuro en el seno del objetivo primordial de desarrollo sostenible que abarca ámbitos tales como salud y bienestar, protección del planeta y ecosistemas, educación, igualdad de género, producción y consumo responsable.

**FUNDACIÓN PUNTA BEGOÑA**

Inskripzio zkia.: F-463

EHAA 31. zk., 2021eko otsailaren 12a, ostirala

Xedeak:

– Getxoko ondare eta aberastasun historikoa aztertu eta ikertzea; arreta berezia jarriko zaio Punta Begoña multzoari.
– Getxoko ondare historiko artistikoa osatzen duten ondasun bereziak babestu, kontserbatu, mantendu, birgaitu eta zaharberritzea, balioa emateko jarduera zehatzak eskatzen badituzte. Bereziki erreparatuko zaie Punta Begoñako multzoan daudenei.
– Punta Begoñako multzoak duen potentzialtasuna identifikatzera bideratutako jarduera iraunkorrak gara daitezela sustatzea.

– Herritarren harrotasuna eta kontzientzia sortzen laguntzea, Punta Begoña multzoaren balio historiko eta artistikoari eta Getxoko kultur ondare osoari dagokienez.

– Ondare-kudeaketako eredu bat sortzea, udalerriaren errekononozimendu eta nortasun ikur bihurtzen dena eta kanpoko proiektuei aplikatzeko bide ematen duena, egindako inbertsio publikoak itzulkin sozial eta ekonomikoa izan dezala bermatuz.

**FUNDACIÓN PUNTA BEGOÑA**

Nº de inscripción: F-463

BOPV N.º 31, viernes 12 de febrero de 2021

Fines:

– Estudio e investigación del patrimonio y riqueza histórico-artística del municipio de Getxo con especial atención al conjunto de Punta Begoña.
– Preservación, conservación, rehabilitación y restauración de aquellos bienes singulares integrantes del patrimonio histórico-artístico de Getxo que requieran actuaciones concretas de puesta en valor, principalmente los del conjunto de Punta Begoña.
– Promoción del desarrollo de actividades sostenibles que conduzcan la identificación del potencial que atesora el conjunto de Punta Begoña.
– Contribuir a la concienciación y fomento del orgullo ciudadano, en relación con el valor histórico-artístico del conjunto de Punta Begoña y del patrimonio cultural de Getxo en todo su conjunto.
– Articulación de un modelo de gestión patrimonial que se convierta en elemento de reconocimiento de identidad del municipio, y posibilite la transferencia de su aplicación a proyectos foráneos, generando un retorno social y económico de la inversión pública realizada.

**EKHE FUNDAZIOA**

Inskripzio zkia.: F-464

EHAA 30. zk., 2021eko otsailaren 11a, osteguna

Xedeak:

Euskal kulturari laguntzea, bai eta haren historiari eta hizkuntzari ere, eta tresna digitalak eta internet garatzen laguntzea, komunikabideetako egungo teknikak hobetzeko I+G proiektuak eginez, prentsa idatzian, irratian, telebistan,

**EKHE FUNDAZIOA**

Nº de inscripción: F-464

BOPV N.º 30, jueves 11 de febrero de 2021

Fines:

El apoyo a la cultura vasca, así como a su historia y su lengua, el euskera; y el apoyo al desarrollo de herramientas digitales y de internet realizando para ello proyectos de I+D para mejorar las técnicas actuales de los medios de comunicación, bien en prensa escrita, radio,

Interneten edo etorkizunean gara daitezkeen hedabide berrietan.

**ERLAN FUNDAZIOA**

Inskripzio zkia.: F-462

EHAA 19. zk., 2021eko urtarrilaren 27a, asteazkena

Xedeak:

Gizarte-ekonomia eta giza garapen jasangarria sustatzen modu aktiboan laguntzea, batez ere EAEn.

**FUNDACIÓN GAINBERRI**

Inskripzio zkia.: F-465

EHAA 35. zk., 2021eko otsailaren 17a, asteazkena

Xedeak:

Kirol-munduari lotutako hezkuntza-jarduerak egitea da, bai Euskal Autonomia Erkidegoko eta Espainiako administrazio eskudunek arautako ikasketa-planetan, bai fundazioak berak sortutako ikasketa-planetan. Proiektuak garatu eta lankidetza-ildoak bultzatu ahal izango ditu, eremu publiko edo pribatuko hezkuntza-zentro edo -institutuekin eta unibertsitateekin, bai eta kirol-munduarekin lotutako erakunde eta organismoekin lankidetzak lotu, estatukoak zein nazioartekoak izan.

**FUNDACIÓN ALEJANDRO ECHEVARRIA BUSQUET**

Inskripzio zkia.: F-465

EHAA 46. zk., 2021eko martxoaren 4a

Xedeak:

Informazioaren sektore berriko (zeharka ulertuta) profesionalak inspiratzea, gaitzea eta bultzatzea, kudeaketa profesionaletik egindako komunikazioaren funtsa berreskuratzeko, zorroztasunean, gardentasunean eta egiazkotasunean oinarritutako komunikazioa lortze aldera, non informazio-kanal dinamikoak eraiki daitezkeen, gizarteak parte-hartze aktiboa izan dezan. Hori horrela, gizartea eta bizitza politiko eta sozialaren balioak hobetzeko asmoz,

televisión, internet o nuevos medios que puedan desarrollarse en el futuro.

**ERLAN FUNDAZIOA**

Nº de inscripción: F-462

BOPV N.º 19, miércoles 27 de enero de 2021

Fines:

Contribuir de una manera activa al fomento de la economía social y desarrollo humano sostenible, principalmente en la CAPV.

**FUNDACIÓN GAINBERRI**

Nº de inscripción: F-465

BOPV N.º 35, miércoles 17 de febrero de 2021

Fines:

Realizar actividades educativas vinculadas al mundo del deporte, tanto en planes de estudios reglados por las administraciones competentes del País Vasco y en España, como en planes de estudios creados por la misma institución. Podrá desarrollar proyectos e impulsar líneas de colaboración con centros o institutos educativos y universidades, de ámbito público o privado, así como establecer colaboraciones con instituciones y organismos, nacionales o internacionales, vinculados con el mundo del deporte.

**FUNDACIÓN ALEJANDRO ECHEVARRIA BUSQUET**

Nº de inscripción: F-465

BOPV N.º 46, 4 de marzo de 2021

Fines:

Inspirar, capacitar e impulsar a profesionales del nuevo sector de la información, entendida de forma transversal, para recuperar la esencia de la comunicación hecha desde la gestión profesional, que redunde en una comunicación basada en el rigor, la transparencia y la veracidad, en la que se construyan canales dinámicos de información que posibiliten una participación activa de la sociedad mediante la divulgación de información vinculada a los

eremu garrantzitsuenei lotutako informazio esanguratsua zabalduko da.

Era berean, komunikazio jasangarria sustatu nahi du, ahalik eta modu transbertsalenean.
Gure egungo gizartean, kazetaritza eta komunikabideak funtsezko tresna dira zabaltzeko, informatzeko, hezteko, sentsibilizatzeko, balioa eta ezagutza sortzeko; izan ere, etengabe eta modu dinamikoan emandako informazioaren bidez etorkizuneko erronkei aurre egiteko bitartekoak eta tresnak gara daitezke. Profesionalek eta komunikabideek, herritar guztiekin batera, indarrak batu beharko dituzte gizarte justu, bidezkoagoa, eta jasangarriagoa eraikitzeko; izan ere, "Jasangarritasuna" agindu etiko eta moral orokorra da, presiorik gabe eta prentsa-askatasunarekin gauzatzen denean.

ámbitos más relevantes para la mejora de la sociedad y de los valores de la vida política y social.
Asimismo, pretende potenciar la comunicación sostenible y de la forma más transversal posible.
En nuestra sociedad actual el periodismo y los medios de comunicación constituyen la herramienta fundamental para difundir, informar, educar, sensibilizar, creando valor y conocimiento de forma que a través de la información proporcionada de forma continua y dinámica se posibilite el desarrollo de medios y herramientas para afrontar los retos del futuro. Los profesionales y los medios de comunicación junto con el conjunto de los ciudadanos deben aunar esfuerzos para edificar una sociedad más justa, equitativa, sostenible, ya que “la sostenibilidad” es un imperativo ético y moral general cuando se ejerce sin presiones, con libertad de prensa.